

Marokoko lurrikararen aurrean, elkartasuna

Marokora laguntza bidaltzeko dirua nahiz materiala biltzen ari dira Urola Kostan • Hasier Hilario han harrapatu zuen lurrikarak; bizitakoa azaldu du // 3



«Espazio eroso
sortu nahi dugu
euskaraz gozatzeko»

Goizane Arana eta Marian Galarraga

Zirika euskara elkarteko kideak // 2

Uda «ona» izan da eskualdeko ostalarientzat

Uda sasoiko okupazio tasaren balorazio «positiboa» egin dute hainbat ostalarik. Eguraldi kaskarra eginagatik, jendea beroari ihesi bertaratu dela uste dute // 6

BORROKAN, GALTZEKORIK GABE

Duchenne giharretako distrofia dute Iren Reyes azpeitiarrak eta Lukas Chaves azkoitiarrak. Haien amak elkartu ditu hedabide honek, gaitzaren nondik norakoak ezagutzeko. Etengabe borrokan ari dira; galtzekorik ez dute, baina bai irabazteko: babes gehiago eskatu dute // 4-5



ANEO OLATZOLA

**EROSKETAK
DOAN**
IRAILAK 11 - 24

**ONGI ETORRI
UDAZKENA!**



Goizane Arana eta Marian Galarraga. JABI GONZALEZ TOSTON

«Ondo pasatzeko ez ezik, argi gorria pizteko ere bagaude»

GOIZANE ARANA ETA MARIAN GALARRAGA ZIRIKA ELKARTEKO KIDEAK

Orain arte izan ez duen euskara taldea du Zarautzek. Sortzaileek bihar azalduko dituzte beren asmoak jendaurrean, baina jada aurreratu dute euskaraz gozatzea dutela xede.

– JABI GONZALEZ TOSTON
Antzeman duzuen hutsuneren bat betetzera al dator Zirika?

GOIZANE ARANA: Bai. Egia da aurrez ere izan direla euskalgintzaren inguruko hainbat mugimendu Zarautzen; beraz, ez gatz zerotik, baina sentitzen genuen herrigintzatik euskararen alde eragiteko talde batek ere hor egon behar zuela. Pertsona batek beste hainbat zirikatu gintuen, eta horrela hasi ginen biltzen, zer egingo genuen pentsatzeko. Egia esan, denbora gutxi pasatu da pentsatzetik ekitera.

MARIAN GALARRAGA: Euskararen zenbait arlotan Zarautzek eredu garri izan behar duela pentsatzen dugu, herri euskalduna baita. Zentzu horretan, herrian euskara elkarterik ez egotea bete beharreko hutsunea zela iruditzen zitzaigun, eta taldea osatzeko ez dugu jendea gehiegi berotu behar izan. Taldekideen artean Euskaraldietan parte hartze aktiboa izan duten herritarrek daukade; bazegoen nahia eta gogoia.

Eta zein dira taldearen helburu nagusiak?

M. G.: Batez ere, ongi pasatzeko da gure asmoa, eta topagune izatea esparru anitzetako eta era askotako euskaltzaleentzat; izan ere, denok dugu amankomunean euskararekiko maitasuna eta euskaraz bizitzeko nahia.

G. A.: Hori da Zirikaren abiapuntua, hain justu. Elkarrekin euskaraz gozatuko espazio eroso sortu nahi dugu. Era berean, eta, Marianek esandakoaren bidetik, herri euskalduna da Zarautz, baina hizkuntza paisaia gaztelaniak ere oso presentzia handia du, kalean asko entzuten baita.

Ondorioz, argi dago badagoela zer egin.

Horrez gain, kanpotik iristen zaizkigun euskararen aurkako erasoei erantzuteko tresna izan behar du Zirikiak. Zentzu horretan, ondo pasatzeko euskarazko ekimenak bultzatzeaz gain, zirikaile ere izan nahi dugu.

M. G.: Azken finean, argi gorria pizteko ere bagaude erasoak edo gabeziak antzematen ditugunean. Halakoetan, gainera, orokorra da egin nahi dugun deia, ez udalari eta erakundeetara zuzendutakoa soilik. Herritarrei ere esan nahi diegu adi egon daitezela eta esku hartu dezatela badagoelako zer hobetua. Zarautzen euskararen egoera ona da beste herri batzuetan dutenarekin alderatuta, baina zaurgarria da, era berean, eta erabilera gehiago bultzatu behar da.

Beraz, nolako ekintzak bultzatuko dituzue?

M. G.: Dagoeneko lotu ditugu hainbat. Biharko aurkezpena izango da lehenengoa, noski. Nahita antolatu dugu orain, Euskal Astearen ondoren eta

ikasturtearen hasieran, olatu baliatu nahi dugulako. Ondoren, gosaria egingo dugu urriaren 7an, eta talde handi samarra biltzea nahiko genuke datorren ur-



«Euskararen alde herrigintzatik eragiteko elkarteak falta zen herrian»

Goizane Arana
Zirika euskara elkarteak kidea

«Talde handiagoo osatzeko da asmoa, eta gazteak animatu nahi ditugu, batez ere»

Marian Galarraga
Zirika euskara elkarteak kidea

teari begira zer jarduerak eta lanak egin ditzakegun pentsatzeko. Azken finean, zertarako prest gauden eta taldea zertarako nahi dugun eztabaidatu nahi dugu.

Azaroaren 11rako, San Martin Egunerako, berriz, kantu bazkaria antolatu dugu. Ilusio handia

egiten digun zerbait da, Lapurdin indar handia dutelako kantu bazkariak, baina hemen ohitura galtzen ari gara, eta berreskuratu egin nahiko genuke.

Abendurako ere badugu beste jarduerak bat esku artean, zeinarekin euskararen eta hainbat jatorritako jendearen egoeraz hausnartu nahi dugun. Urtea amaitu bitartean, ekintza bat egingo dugu hilero.

Dena den, herritarrek uztailan izan zuten zuen berri, Espainiako Konstituzio Auzitegiak udalretako barne funtzionamendua euskara hutsean egitearen kontra kaleratutako ebazpena salatzeak mobilizazioa deitu zenutenean. Orduan izan zenuten bezainbesteko atxikimendua espero duzue bihar?

G. A.: Jende asko mobilizatzea lortu genuen orduan, eta izan daiteke egoera berezia zelako jaso genuela halako erantzuna. Dena den, oraingoan ere Gaztelekura jende dezente bertaratzeko espero dugu, izan ere, hainbat herritarren aldetik sumatu dugu gogoia. Jendeak sentitzen du badagoela talde baten beharra Zarautzek euskalduna izaten jarraitzeko lan egingo duena; garrantzitsutzat jotzen dute hori.

Elkarretaratzeari lotuta, bestalde, kasualitatea izan zen. Konstituzionalaren epaia iritsi zenerako elkartzeko hasiak ginen; epaia onartezina iruditu zitzaigun, eta taldea sortu behar genuela argi genuen bezalaxe, argi izan genuen hari ere erantzun beharra zegoela. Gainera, protestak taldera jende gehiago batzeko balio izan zuen.

Biharkoak ere badu asmo hori, ezta?

M. G.: Bai, jende gehiago gerturatzeko da helburua. Berezik, gazteak animatu nahi ditugu taldera, falta ditugulako. Lan guztietarako behar ditugu kolaboratzaileak; gauza txikitetan lagunduko dute batzuek eta izango dira handiagotan parte hartuko dutenak, baina guztiak dira baliagarriak. Gainera, ez dute zertan batzorde guztietan parte hartu, baina haien iritzia ere jakin nahi dugu.

Ba al duzue harremanik beste euskara talde batzuekin?

M. G.: Bai. Hasieratik izan gara hartu-emanen Euskaltzaleen Topagunearekin, eta Zumaiaiko Larraina euskara taldearekin ere hitz egin dugu.

G. A.: Elkarrean eratzeko estatuak eta beste zenbait izapide egin behar dira, eta beste talde batzuen ereduak ezagutzeko asko lagundu digu lan horretan.

Iragarki laburrak

Lan eskaintza

Zarautz. Santa Ana egoitzan, monitore bezala lan egiteko pertsona baten bila gabezia. Interesatzuz gero, deitu 943-83 31 50 zenbakira.

Laguntza biltzen hasi dira lurrikarak kaltetutako herrikideei bideratzeko

Marokoko lurrikararen ondorioz ezer gabe gelditutakoei laguntzeko dirua biltzen ari da Urola Kostako marokoarren komunitatea • «Hainbat herrikide ezer gabe gelditu da», diote

– NEREA URANGA – ONINTZA LETE ARRIETA


Joan den ostiral iluntzean, 23:11n, 6,8 graduko lurrikarak Marrakexko (Maroko) hego mendebaldean astindu zuen; Ighil udalerrian izan zen epizentropa, Atlas mendikatean. Al Hauz probintzia izan da kalte-tuena, hainbat herrixka erabat suntsituta gelditu dira, eta errepideak itxia, hainbat herri isolatuta geldituz. Marrakex hiriburuaren ere izan dira kalteak, batik bat Alde Zaharrean. Marokoko Barne Ministerioak herenegun emandako datuen arabera, gutxienez 2.862 dira hildakoak eta 2.562 pertsona zaurituak.

Urola Kosta eskualdean bizi den marokoarren komunitatea handia da, eta hainbat tokitan kaltetuak izan diren herrikideei laguntza bideratzeko antolatzen hasi dira, besteak beste, Azpeitian eta Orion.

Azpeitian laguntza biltzeko antolatu duten taldeko kideetako bat da Said El Alai. «Lurrikararen ondorioz, hainbat herrikide etxerik gabe eta ezer gabe gelditu dira, eta horren aurrean, guk ezin dugu geldirik egon. Beraz, haiei laguntza bideratzeko dirua biltzen hasi gara», dio.

Atzo eguerdirako 1.340 euro bilduta zituzten Azpeitian. «Dirua bakarrik bilduko dugu Maro-

kora bideratzeko. Ezin dugu elikagaiak, arropa edota mantak biltzen hasi, Marokora bideratzeko garraioa garestia delako eta aduanan arazoak izan ditzakegulako», adierazi du. Marokora bideratzeko dirua kaltetuei laguntzera bideratzeko dutela bermatuko dutela azaldu du El Alai: «Marokon boluntario laguntzen ariko diren herrikideekin hitz egin dugu, eta haiek han dirua elikagaiak, mantak... erosteko erabiliko dute. Gainera, dirua zertan erabiltzen den erakusteko argazkiak eta aterako dituzte». Norbaitek laguntza eman nahiko balu, Azpeitiko meskitarra zuzendu beharko du edota El



Lurrikarak eragindako etxe bat, Marrakexen. ASIER HILARIO

Alauiarekin harremanetan jarri, 631 05 58 97 telefono zenbakira deituta. Ostirala bitartean bilduko dute laguntza: «Denbora pasatzen ari da, eta ahalik eta azkarraren helarazi nahi diegu laguntza kaltetuak izan direnei».

Orioko marokoarren komunitatea ere mobilizatzen ari da. Aste honetan bertan abiatzekoak dira janari eta produktu bilkerata Marokoko lurrikaran kaltetuei

laguntzeko. Lokala lortzeko bidean dira, eta behin hura izandakoan jakinaraziko dute zer egunetan eta ordutegitan jasoko duten herriarren laguntza. Udarekin ere harremanetan dira.

Orioko komunitateko inork ez dauka familiarik kaltetutako guzuean, baina Orion bizi diren marokoar batzuk herrialdean ziren eta sentitu zuten lurrikara. Gaua kalean pasatu behar izan zuten.



“Ez zidan denborarik eman zer gertatu zen pentsatzeko»

Asier Hilario
Geoparkeko koordinatzaile zientifikoa

– MARIA MAYA MANTEROLA

Zumaia
Asier Hilario (Tolosa, Gipuzkoa, 1977) Geoparkeko koordinatzaile zientifikoa Marrakexen izan zen aurreko astean, Nazioarteko

Geoparkeen Kongresuan. Geologia hantxe harrapatu zuen lurrikarak.

Nazioarteko Geoparkeen Kongresuan izan zara Marrakexen.

Bai. Leire Barriuso [Geoparkeko kudeatzailea] eta biok izan ginen han, Euskal Kostaldeko Geoparkea ordezkatuz. Bi urtetik behin egiten dute kongresua, munduko geoparke guztiak bilduz. Guztira, 90 lurraldetako 200 geoparkekit gorako 1.300 pertsona inguru bildu ginen. Ostegunean hasi zen kongresua, eta aurrez, Unescoren zuzendaritzako zenbait bilera izan ziren. Aurkezpen asko izan ziren, eta guk Geoparkeko zenbait gauza azaldu genituen.

Non harrapatu zintuzten lurrikarak?

Ostiral gauean izan zen lurrikara, eta Leire eta biok Marrakexko plaza nagusian geunden, Espainiako beste geoparke batzuetako kideekin aflatzen. Plaza hori jendez beteta egoten da; bizitzaz beteta. 23:00ak jota agurtu ginen, eta ni taxi batean harrapatu ninduen lurrikarak, hotelera bidean.

Marrakexko medina horma handi batzuekin babestuta

dago, eta handik atera ginen; orduan, horma haien atzean luxuzko hotel bat dagoela kontatzen ari zitzaizdan taxilariak. Ustekabearen soinu erraldoi bat entzun genuen, eta medinako hormak hauts piloa ateratzen eta zati batzuk erortzen hasi ziren; orduan ohartu ginen zerbait gertatzen ari zela.

Nola erreakzionatu zenuen?

Taxilariak kaos hartatik ateratzen asmatu zuen, eta bost minutu barru hotelean nengoan; jendea mailetak egiten eta aireportura joaten hasi zen. Horrek ez du inolako zentzurik, baina horrela izan zen. Hoteleko igeri-geluko hamaketa igaro genuen gaua, erreplikaren bat izatea posible zelako eta kanpoaldeko eraikin modernoek pitzadura handiak zeuzkatelako. Bigarren lurrikara bat izan zen, 4,5eko.

Ez zen eraikin handirik erori, baina bai horma zatiak, eta haiek sekulako hautsa altxatu zuten. Kaos handia sortu zen.

Pentsatu al zenuten lurrikara izan zitekeela?

Hotel berean zeuden kongresuan parte hartzen ari ziren Japoniako eta Mexikoko zenbait geologo. Lurrikaretan adituak

dira haiek, baina halakorik sekula ez zutela bizi esan zidaten. Minutu erdian gertatu zen dena, eta ez zidan denborarik eman zer gertatu zen pentsatzeko ere. Hotelera iritsi nintzenezan jabetu nintzen lurrikara izan zela; izan ere, autoaren barruan ez genuen dardararik sentitu, autoak berak leuntzen dituelako dardarak. Leirek bai, hark sentitu zituen dardarak, hoteleko sarreran zegoelako.

Zu zeu geologoa zara. Zergatik gertatu zen?

6,8koa izan zen lurrikara, nahiko bortitza; suntsikorra izan zen, epizentropa sakonera gutxikoa zelako. Atlas mendietan, Marrakextik hegoaldera 70 bat kilometrorra, izan zuen epizentropa. Ingurua ez da sismikoki oso aktiboa, eta ezusteko handia izan da. Beste mendikate guztiak bezala, baina, Atlasek ere faila piloa ditu, eta horrek erakusten du oraindik mendikate aktiboa dela. Faila alderantzizkatu batean gertatu da, eta konpresioagatik materialak bata bestearen gainean kokatzen dira. Hori ez da ohikoa lurrikaretan, normalean zeharkako failetan gertatzen direlako; Turkiakoan, esa-

terako. Izan ere, lurra alde batera eta bestera mugitzen dute faila horiek. Faila normaletan, berriaz, lurra beherantz erortzen da.

Kasu honetan, nolabait esateko, materialak bata bestearen gainean muntatzen dira. Afrikak Europaren aurka egiten duen presio horren ondorioz dira Atlasak, baita Pirinioak ere; Iberiar penintsula horregatik dago hain zimurtuta. Gertatutakoak erakusten du Afrikaren eta Europaren arteko talka hori aktiboa dela.

Etxean zara dagoeneko.

Bai. Zaurgarriak gara naturaren aurrean, baina hausnarketa nagusia da badaudela batzuk besteak baino askoz ere zaurgarriagoak direnak. Kasu honetan, herri txikietan bizi diren pertsona xumeak dira, ia ezer ez dutenak, eta beren etxea eta gauza guztiak galdu dituzte. Gure kasuan, berriaz, anekdota bat besterik ez da izan. Geologoa naizen aldetik, beti izan dut lurrikara bat sentitzea zer den jakiteko gogoia, lurrraren indarraren adierazpen nagusia delako. Egokitu zait bizitzea lurrikara, eta jakin-min hori bat-batean beldurra bilakatzeko dela ohartu naiz.



Veronica Reyes eta Elena Canja, Irenen eta Lukasen ama, hurrenez hurren. ANE OLAIZOLA

Duchenne giharretako distrofia duten bi mutiko dira Iren Reyes eta Lukas Chaves. Batari duela sei urte diagnostikatu zioten; besteari, duela urte eta erdi. Haien amek babes gehiago eskatu dute.

Indarra behar, aurrera egiteko

—ANE OLAIZOLA

Duchenne-
n Kon-
tzie n-
zia-
ziorako Na-
zioarteko
Eguna izan
zen joan
zen ostegunean, eta beste behin,
gaitzari ikusgarritasuna ematen
dion kolore gorri jantzi ziren
Azkoitiko eta Azpetitiko zenbait
txoko. Marea Urdina elkartek
deituta, gainera, elkarretaratzea
egin zuten egun horretan Azkoit-
tian, eta plazan bildu ziren zen-
bait herritar, baita giharretako
distrofia pairatzen duten eskual-
deko bi mutiko ere: Iren Reyes
azpetiarrak eta Lukas Chaves az-
kotiarrak.

Giharren ahultasun progresi-
boa eragiten duen gaitz hilkorra
da Duchenne, eta 3.500 gazte-
atik bati eragiten dio. Hain zuten,
hautzaroko muskulu distrofia
ohikoena da Duchenne. Irenek
zein Lukasek umetatik dute gai-
xotasuna, baina beraien oztopo-
ak ez ezik, gizaraten dituztenak

partekatzen dituzte senideekin.
Komunean duten egoerak hain-
bat bizipen sortu dizkie Irenen
ama Veronica Reyesi (Azpetitia,
1977) eta Lukasen ama Elena
Canjari (Brasov, Errumania,
1993): duela sei urte diagnostika-
tu zioten gaitza Iren azpetiarrari,
6 urte zituela, eta duela urte
eta erdi, Lukasi, 5 urterekin. Gai-
xotasun hori dutenel distrofia
falta zale, eta proteina hori fun-
tsezkoa da giharretako zuntza
mantentzeko. Hori hala, zailta-
suna izaten dituzte hainbat jar-
dueratarako: «Iren jaloberria
zela, ohar-tu ginen ez zela lau
hankan ibiltzen, eta kosta egiten
zitzaion eserita egotea ere. Eror-
tzen zenean ere ez zituen eskuak
jartzen; osorik erortzen zen»,
kontatu du Reyesek. 2urte zitue-
la, probak egin zizkioden umeari,
baina ez zioten Duchenne atze-
man. «5 urterekin, asko luzatu
zen Iren, eta orduan, haren gor-
putzak ezin izan zuen haziara
hori konpentsatu. Aldi hartan ja-
kin genuen giharretan distrofia
falta zuela».

Antzeko sintomak izan zituen
Lukasek ere: «Kosta egiten zi-
tzaion eserita egotea eta lau han-
kan ibiltzea, baina ezkerreko be-
gian katarata bat du, eta medi-
kuek esaten ziguten horregatik
izan zitezkeela atzerapen horiek.
Iaz, pediatriaz aldatu genuen, eta
hark ikusi zuenean Lukasek zut-
ik jartzeko modu berezi bat zue-
la, probak eginarazi zizkion»,
esan du Azkoitiko bizilagunak.
Familiaiek ere orduan izan zuten
gaitzaren berri. «Hor hasi zen
guztia».

Ikerketan, motz

Gaitzaren beste berezitasun bat
da pertsona bakoitzaren garape-
nari desberdin eragin diezaiake-
ela: Irenek gorpil aukila behar
du 9 urte zituenetik, eta beste
hainbat gailuk ahalbidetzen dio
egunean bi orduz behintzat zut-
ik mantentzea; bestelakoa da
Lukasen egoera: «Oraingoz, oi-
nez ibiltzen da, baina, esaterako,
kosta egiten zaio eskailerak igo-
tzea. Egonkor dago, baina gehi-
ago nekutzen da, eta tratamen-

duak urduritasunean eragiten
dio; egonezin handia du». Zera
gaineratu du Reyesek: «Distrofi-
nak burmuinean ere eragiten
du, eta ondorioz, oso burugor-
rak izaten dira. Jendeak pentsa
dezake umeak beste arazo ba-
tuzk dituela, baina ez da jarraera
kontua».



«Guk finantzatzan dugu ekonomikoki seme-alabentzako ikerketa»

Veronica Reyes

Duchenne gaitza duen Irenen ama

Azpetiarraren ustez, gaitzak
eboluzio bera ez izateak «frustra-
zioa» eragiten du gaixoen eta se-
nideen artean: «Alde batetik, Ire-
ni gustatzen zaio gaitz bera du-
ten pertsonekin egotea, baina
zera esaten dit: 'Horrek 12 urte
ditu eta oinez ibil daiteke, baina
ni ez'. Izan ere, guk denetarik
probatu dugu, eta eboluzioa

daukaguna da; beste batek, be-
harbada, ez ditu horrenbeste
gauza probatu, eta hobeto dago.

Atsekabea sortzen du horrek».

X kromosomari lotutako gaitz
genetikoa da Duchenne, eta ez
dago hura sendatzeko tratamen-
durik, oraingoz behintzat. Bizi
kalitatea hobetzea helburu, or-
dea, biek ala biek kortikoidez
osatutako botika hartzen dute,
eta terapiak zein fisioterapia
saioak jasotzen dituzte. Bidean,
oztopo ugari gainditu behar izan
dituztela adierazi dute gurasoek:
«Irenek jasotzen duen botikak
300.000 euro balio ditu urtesen,
eta horren aurrean, Gizarte Se-
gurantzak protokolo bat du abia-
tuta: gaixoak oinez ibiltzeari uz-
ten diotenean, botika kentzen
diote. Toledon (Espainia), gaitz
bera zuen beste haur bati botika
kendu zioten, eta ordukt ezin
zuten eskuetik ibiltzeari bota bat
ere jaso. Epaiaketen bidez lortu zuen
familia hark umeari botika itzul-
tzea, eta aurrekari horrek, Ire-
ni ere oraingoz ez diote kendu,
baina boroakatu egin behar izan



Reyes, haren alaba Paule eta seme iren, Canja eta Lukas, joan den ostegunean, Azkoitian. UTZITAKOIA

dut horretarako. Izan ere, botikak ez du balio onuz ibiltzeko, baina behintzat bihotzari laguntzen dio, eta garrantzitsua da hori, normalean gaineko horiek bihotz-birikengandituzen eraginez hiltzen direlako».

Fisioterapiaren bidez, bestealde, giharren malgaitasuna eta mugikortasuna landu ditzakete gaixoei, baina azpeitarrak azaldu du GIZATE Seguraz eta ez dela 6 urterik gorako umeen kargu egiten, orduan amaitzen delako arreta goiztiarra. «Esaten dute: 'Gaixotasun degeneratiboa izanik, ez dute lekukik erreibilitazioan'. Orduan, sare pribatua joatea beste aukerarik ez dugu». Ikastetxean ere jasotzen dute fisioterapia zerbitzua. Berritzegunearen bidez, urritik maiatzera.

Gaixotasun ihilkorra izanagatik, «ahaztuta» sentitzen dira Duchenne duten erak eta haien senideak, eta erakundeek laguntza gehiago eskaini beharko luketela aspimarratu dute biek. Zentzu horretan, gaitzaren diagnostikoa jaso zuten unea ekarri dute gogora. «Medikuak deitu zidan, haurraren kontsultara joan ninduen. Amaginarrebarekin joan nintzen, eta haurraren aurrean jakinarazi zigan hark Duchenne zuela. Behar io nuen, eta ondano nuen umea kezkatuta, zergatik ari nintzen negarrez galdetza. Izugarria izan zen. Profesionaltasun falta hutsa izan zen; enpatia falta ikaragarria». Reyes: «Niri umearen aurrean ez, baina oso modu hotzean eta motzean eman zidaten berria, gaitzaren informazio urriarekin. Esererako, ez zidaten jakinarazi gaitz hori lotutako el-

karte bat dagola: Duchenne Parent Project. Zurienez, gaitzaren diagnostikoa gurtzi daude, baina badaude, eta baldin badaude, jakinarazi beharko lukete elkarre bat badagoela, gaitz bera duten senideok hain hiltz egin dezakegula». Haien ustez, GIZATE Seguraztako psikologoek eman beharko lukete diagnostikoa.



«Semeak gelakideei azaldu die bere egoera zein den, haiek ere uler dezaten»

Elena Canja
Duchenne duen Lukasen ama

Ikerketan ere jarri dute arreta, arlo horretan «arazo larria» dute-lasumatzaren baitute. «Ikerketa ez dago finantzatuta, eta Duchenne Parent Project elkartek dirua biltzen du ikerketarako. Gurasoek osatzen dugu elkartea, eta gu gara seme-alabentzako ikerketa ekonomikoak ahalbidetzen dugunak, antolatzen ditugun ekintzen bidez».

Lezioak semeen eskutik

Gurasoei aitortu dute ez zutela gaitzaren berri diagnostikoa jaso baino lehen, eta ordukit, «ahal den neurrian kasten» ari direla. «Veronikari esker asko ari naiz ikasten, hark eman dizkiri erreferentzia ugari. Hura ez banu ezagutu, zeharo galduta egongo nintzatekeen», dio Canjak.

«Gastu ikaragarria» ordaintzeaz gain, bi amen uesten gizartea oraindik ez dago «prest» gaixotasun hori dutenentzako. «Irisga-

rritasun arazoak nonahi daude, eta inklusioa iristeko asko falta da. Esererako, udalekuetara joateko taxi bat bidaltzen digute. Zertarako, beste adiskideekin batera joateko egokitutako autobusak baldin badaude? Ez dute ikusten bazterketa». Dena den, egoera «asko» aurreratu dela gaineratu du azpeitarrak: «Aulkik elektrikoaren bidez, iren bere kabuz mugi daiteke, eta lagunekin egoten da hainbat orduz. Haiek ere ikasten ari dira, eta maitasun zein errespetu handiz tratatzen dute». Canjak ere gaineratu du eskolan «oso ondo» hartu dutela Lukas. «Semeak gelakideei azaldu die bere egoera zein den, haiek ere uler dezaten».

Jakinekoka da beharrezkoa dela bizitzan aurrera egitzeko gorpuz eta buruko indarra; ondo baino hobeto dakite hori bi familiek: «Une oro borroka egin behar dugu, eta batzuetan indarrez gaude, baina ez beti».

Duchenne giharretako distrofia dutenen bizi itxaropena 30 urte ingurukoa da egun, baina minak min, saiaterien dira gaixotasunaren bestelako irakurketa bat egiten: «Elkarri esaten diogu egumero hiltzen direla umeak; gurtzik hilkio gara, eta inork ez dakela noiz. Ahalegintzen gara esaten Duchennek hil egingen duela, baina hori baino lehen beste mila gauza gerta dezakeela. Beste modu batera bizitzen saiatzen gara». Gaixotasunak eman dizkien ikasgaiez gain, semeek ere «lezio ugari» eman dizkiete batar zein bestearekin: «Pozik daude, indarra dute, eta bizitzeko gogoia nabari zaie».

Stock Azoka egingo dute etzi eta larunbatean, Azpeitian

Bertan merkatarien elkartek antolatuta, guztira 40 saltokik parte hartuko dute egitasmoan: hamabik Azoka Plazan jarriko dute postua, eta besteek herrian zehar.

-MAILLOIARZABAL Azpeitia

Bertan Azpeitiko merkatarien elkartek antolatuta, udaberri-uda denboraldiko produktuen Stock Azoka egingo dute Azpeitiko saltokiek asteburuan. Ostirail aratsaldean hasiko da Stock Azoka, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Larunbatean, berriz, goiz eta aratsalde egongo dira postuak zabalik, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara artean.

Guztira, 40 saltoki izango dira ekintzan parte hartu eta denboraldiz kanpoko produktuak prezio ezin hobetan eskainiko dituztenak. Stockaren gune nagusia Azoka Plaza izango da; han, hamabi postu aurkitu ahal izango dira: Aitzaki Kirolak, Etsola Tien 21, Euskadi Sport, Ilargi, Jostaldi Kirolak, Larrañaga Kirolak, Martina Isasti, Nerea Eskulanak, Oihelze, Sein Briko, Ubbo eta Urbistondo.

Horiez gain, beste 28 postu aurkitu ahal izango dira herrian zehar, horietatik 26 bakoitza bere saltoki aurrean kokaturik: Agirre opari denda, Alar mertzaria, Alzuaren, Arantxa haur denda, Arku, Arrospeide, Azkue mertzaria, Babesa moda, Biur, Bossi, Disidra, Furundarena, Geu, Iosu

optika, Kafoa, Koket, Kotoi, Mendata, Mina mertzaria, Ordu-lari, Ostadar, Romaes, Tiliñ Talan, Ufito, Zume eta Zuri Beltz.

Tallerrak eta animazioa

Kids&Us-ek eta Ohana Barefoot-ek, berriz, plazan jarriko dituzte postuak larunbatean. Kids&Us-ek haurrentzako jolasak ere eskainiko ditu larunbatean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean. 8 hilabeterik 6 urte bitarteko haurrentzako tallerrak izango dira, eta online eman dateke izena.

Kale animazioarekin eta dinamizazio ekintzekin osatuko dute asteburuko Stock Azoka. Ostiralean, 19:00etan, Juan Antxietak musika eskolakoek emanaldia egingo dute plazan, eta horren aurretik kalejira inbilio kirol Stock Azokako postuak jarriko dituzten guneetan. Azpeitiko merkatarien elkartearen Berti maskota ere ibiliko da kaleetan bi egunetan, eta zumba erakustaldi ibiltaria izango da larunbatean, 18:00etatik aurrera. Azpeitiko Stock Azokan erosketek egingen dituztenek ehun euroko sei erosketa bonuren zozketan parte hartuko dute.



Stock Azokan parte hartuko duten merkatariak, plazan. BERTAN

—MIREIA GALARZA BASTIDA

Iraila iritsi da, baita ohiko errutina berreskuratzeko momentua ere. Gutxi batzuei hainbat opor egun geratzen zaizkie oraindik, baina gehienek ekin diote beren egunerokotasunari, eta ondorioz, turisten joan-etorriak lasaitu dira txoko gehienetan, baita eskualdean ere. Beraz, udako oporraldiak eman duenaren balorazioak egiten hasi dira eskualdeko negozio asko. Nolakoa izan da uda eskualdeko ostatueta?

Urrategi Alberdi, Iñigo Lazkano eta Bakarne Zabala, Azkoitiko Abaraxka aterpetxeako kudeatzailea, Zumaiaiko Zelai hoteleko zuzendaria eta Zarauzko Egona etxebizitza turistikoetako zuzendaria dira, hurrenez hurren, eta denen hitzetan, uda «ona» izan da. Lazkanok azaldu duenez, hoteleko okupazio maila %100 izan da ia udaldi osoan, eta «oso pozik» agertu da horrekin. «Tabernako terrazan ez da horrenbeste jende ibili, eguraldi txarrak gehiago eragiten duela arlo horretan», gaineratu du Zelaiaiko zuzendariak.

Abaraxka aterpetxearen kasuan ere, «balorazio positiboa» egiten dute udako datuen bueltan. «Ekaineko asteburuetan eta uztaillean mota askotako taldeak eduki ditugu gurean, eta oso ondo egin dugu lan haiekin», dio Alberdik. Zabalak ere azaldu du udako datuak «onak» izan direla, baina «arraroa» izan dela ere nabarmendu nahi izan du: «Nabari-tu dugu bidaia-erakazken momentuan egin dituztela erreserbak, eta lehen denboraz egiten zituzten. Gainera, ez zituzten horiek ezeztatzen, eta uda honetan ikusi dugu jendeak oso tarte gutxi-ekin utzi dituela bertan behera egindako erreserbak».



Hainbat turista Abaraxka aterpetxean. ABARAXKA ATERPETXEA

Uztaila eta abuztua ez dira, batzuentzat, nahi bezain onak izan eguraldiari dagokionez. Urola Kostako ostatueta okupazio tasa, ordea, «positiboki» baloratu dute sektoreko hainbat profesionalak.

Udako okupazio tasaren merkurioa gori-gori

Hiru leku horietan ibili diren profilek badituzte parekotasunak, baina baita desberdintasunak ere. Abaraxkaren kasuan, lan gehiena talde handiekin egin dute, Alberdiren esanetan, «azpiegiturak aproposak» direla-ko horientzat: logela handiak, hitzaldirak emateko areto zabala eta talde osoa sartzen den jantokia, esaterako.

Zumaiaiko eta Zarauzko negozioen kasuan, familiak izan dira haien zerbitzuak gehien kontratatu dituztenak. Lazkanok adierazi du normalean ume bat edo biko familiak izan dituztela hotelean, baita bikoteak ere. Nazionalitateari dagokionez, hainbat leku aipatu dituzte elkarriketatuek. Zabalak alemaniarrek eta frantsesak aipatu ditu; eta azken

horiek ere nabarmendu nahi izan dituzte Lazkanok eta Alberdik. Dena den, turista espainiarren garrantzia ere azpimarratu dute, haien esanetan, «merkatuaren zati garrantzitsua» direlako.

Eguraldia, aldeko faktore
Euskal Herrian bizi diren askok aipatu dute aurtengo uda ez dela

nahi bezalakoa izan, uste baino eguraldi kaxkarragoa egin duela. Dena den, Munduko Meteorologia Erakundeak orain dela egun batzuk argitaratutako datuen arabera, aurtengo ekaina, uztaila eta abuztua inoiz erregistratutako beroenak izan dira mundu mailan. Txosten beraren arabera, abuztuko batez besteko tenperatura 1,5 gradu altuagoa izan da industriaurre garaikoa baino, eta Antartikako itsas izotzaren hedadura gutxieneko historikoetan dago.

Hain zuzen ere, Iberiar penintsulako beste hainbat lekutan egin duen berotik «ihes egiteko» bertaratutako hainbat turista es-

Espainikoez gain, Europako turista asko izan da aurtur, batik bat frantsesak

kualdera, elkarriketatuen hitzetan. Zabalaren ustez, «freskotasuna» da Espainiako turistek inguruotan bilatzen dutena, eta eguzkirik ez izatea ez da arazoa haientzat. «Izerekin lo egitea eskertzen dute haiek», azaldu du zarauztarrak barrez.

Freskotasunaz gain, inguruko lekuak ezagutzea ere bilatzen dutela azaldu du Alberdik. «Askok iristen dira inguruko hiriburuetatik gertu gaudelako, baina gero konturatzen dira gure ingurua ere altxor bat dela, eta bat baino gehiago geratzen dira eskualdeko bazterrek ezagutzen», gaineratu du.

Balorazioak balorazio, hurrengo urtera begira ere badaudela aditzera eman du Lazkanok. «Negua izaten da ondorioak atera eta hausnartzeko garaia, eta beti gaude zerbitzuak nola hobetu pentsatzen», dio Zelaia-ko zuzendariak.

Onaindia gogoan, haren heriotzaren 20. urtemugan

—ARITZ MUTIOZABAL Zarautz Abuztuaren 31n hogeitau bete ziren Mario Onaindia politikaria hil zela. Urteurren biribila kontuan hartuta, Mario Onaindia Fundazioak egitarau berezia antolatu du datozen asteetarako. Haren ibilbidean, alor ezberdinetan nabarmendu zen, eta horietako batzuk aztertuko jardunaldiak egingo dituzte.

Lehen saioa Bilbon izango da bihar, Euskaltzaindiaren egoitzan, eta Onaindiak euskal idaz-

le gisa urratu zuen bidea izango dute hizpide honako gonbidatuak: Manu Gojenolak, Andres Urrutiak, Jon Juaristik, Belen Altunak eta Felipe Juaristik.

Hurrengo hiru saioak Zarauzko Zazpi kultur aretoan egingo dituzte. Irailaren 22an, politikari moduan gogoratuko dute, eta irailaren 29an, berriaz, intelektuala moduan; 19:00etan hasiko dira bi saioak. Onaindia politikariaren jardunaldian parte hartuko dute Teo Uriartek, Roberto

Lertxundik, Ramon Jauregik eta Luis R. Aizpeoleak. Jardunaldi intelektualean, berriaz, ondorengoak izango dira hizlari: Carmen Iglesias, Jaun Pablo Fusi eta Txema Portillo.

Hirugarren eta egitarau bereziari amaiera emango dion ekitaldia Mario Onaindia sariaren banaketa izango da. Urriaren 7an egingo dute, 12:30ean hasita, eta aurtur Ana Murugarren zinema zuzendariari egingo diote aitortza.



Mario Onaindia Fundazioko kideak ekitaldi batean. HITZA

Kirol jardueretan izena emateko epea irekita izango da hilaren 22a arte

Jardueretan taldeak sortzeko gutxieneko izen emate kopurua beharko da • Izena eman nahi dutenek kiroldegiko bulegora jo behar dute • Urriaren 2an hasiko da jardueren ikasturte berria



Zestoako Udal Kiroldegiko gimnasioa. HITZA

–IRAIA OTEIZA Zestoa

2023-2024 ikasturterako kirol jardueren eskaintza berria pres-tatu du Zestoako Udal Kirolde-giak. Heldu fit, pilates, multifit-ness, total training eta spinning jarduerak eskainiko dituzte he-rriko kiroldegian, eta Arroa Akti-boia eta Aizarna Aktiboa eskain-tzak ere izango dira hastear den ikasturtean.

Adin desberdinetarako jar-duerak eskainiko dituzte, goize-ko edo arratsaldeko txandetan eta astean egun bateko edo biko ordutegiarekin. Jardueretarako

taldeak sortzeko gutxieneko izen emate kopurua bete behar-ko da, eta horrela ez balitz, kirol-degiak talderen bat ez sortzea erabaki dezake. Ondorioz, Udal Kiroldegia arduradunek jak-i-narazi dutenez, ikastaroen or-dainketa taldea sortu dela ziur-tatzen denean egingo da.

Bestalde, ikastaroak irauten duen bitartean bazkide egoeran aldaketarik balego –hau da, alta berriak edo bajak–, ikastaroen tarifak era proportzionalean aplikatuko lirarteke. Era berean, ordainketa bi zatitan egiteko au-

kera izango da, %50 hasieran eta beste %50 abenduan. Aukera horretaz baliatzeko derrigorrez-koa izango da kuota kontu ko-rrontean helbideratzea.

Urriaren 2tik aurrera

Ikastaroen batean izena eman nahi dutenek kiroldegiko bule-gora joan behar dute. Horretara-ko epea ireki dute jada, eta hil honen 22an itxiko dute.

Taldeak sortu diren ala ez irai-laren 26an jakinaraziko du kirol-degiak, eta urriaren 2an ekingo diete kirol jardueri.

Beldur eszenikoa lantzeko ikastaroa emango dute Azpeitian

–AITZIBER ARZALLUS

Azpeitia

Euskal Herriko Trikitixa Elkartek Azpeitiko bere egoitzan –Ba-sazabal jauregian dago– aurtengo ikasturtean antolatu nahi di-tuen lau ikastaroetatik lehenen-goaren berri eman du.

Besteonean aurrean, zure onene-an izenburua duen ikastaroan beldur eszenikoa landuko dute Urko Arozena irakaslearen gida-ritzapean. Ikastaroa datorren la-runbatean, irailaren 16an, izan-go da Basazabal jauregian, 09:30etik 13:30era bitartean. Saio horretan parte hartu nahi dutenek trikitixa@trikitixa.eus helbide elektronikora mezua bi-dali beharko dute –gaur da izena emateko azkenengo eguna–, eta 50 euro ordaindu –elkarteko bazkideek %15 gutxiago–. Lekua mugatua izango denez, ahalik eta azkarren izena emateko es-kuatu dute antolatzaileek.

Musikenerako irakaslea da Aro-zena, eta hainbat urtez eman du *Zoriontsu izateko entrenamendu*

mentala ikastaroa. Euskal Herri-ko Trikitixa Elkartearen eskutik Azpeitian eskainiko duen ikasta-roan, bi eremu horietako ezagu-tzak uztartuko ditu: musika eta buru entrenamendua. Hain zu-zen ere, azken urteetan lankide-ekin zein ikasleekin bizitako es-perientziak oinarri hartuta, zu-zeneko egoerak eramangarri bihurtzeko tresnak ezagutarazi-ko dizkie ikastaroko parte har-tzaileei irakasleak.

Arozenak 2019an argitaratu zuen *Besteonean* aurrean, zure onene-an liburua, eta han bilduta daude ikastaroan landuko dituz-ten gaiak.

Ikastaro eskaintza

Trikiti elkarteak datozen hilabe-teetan jakinaraziko ditu aurtengo ikasturtean antolatuko di-tuen beste ikastaroak zeintzuk diren.

Hori bai, dagoeneko esan du lau ikastaroetan parte hartzen dutenek horietako bat doan egin ahal izango dutela.

Eskelak



Karmen Garro Artola

Irailaren 11n hil zen, 63 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

–Goian Bego–

Bere senarra: Jesus Mari Tolosa; gurasoak: Pablo (†) eta Maria; ezkon gurasoak: Jose Miguel (†) eta Valentina; anai - arrebak: Jose Manuel eta Sorkunde, Ana eta Aitor; ezkon anai-arrebak: Adrian, Edurne eta Jose; ilobak: Alaitz eta Aitor, Olaia, Aiora eta Kepa, Eider, Ugaitz; etxeko osaba: Joxe; lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.

Haren arimaren alde, otoiñtz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela, ASTEAZKENA arratsaldeko SEIETAN, Hernialdeko ANDRE MARIAREN ZERURATZEA parrokian izango den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

HERNIALDEN, 2023eko irailaren 13an.

Oharra: Gorputz beila Tolosako ORIA BEILATOKIAN egongo da, ASTEAZKENA eguerdiko 13:00ak arte.



Hilberriak Urteurrenak Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAN jarrita, Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu urolakosta@hitzza.eus Tel.: 943-89 00 17



BOSGARREN URTEURRENA Oñeka Auzmendi Aierbe

2018ko irailaren 13an hil zen 26 urterekin

Betirako gure bihotzean.

Zure sendia

ATAUNen, 2023ko irailaren 13an.



Mª Pilar Irastorza Larreta

‘La rubia de Amebi’

–G.B.–

*Mugaertz honek bizi gaitu nahitaez:
Hemen herria amaitzen da
eta hor hasten besterria.*

Sukaldari taldeak bihotz-bihotzez.
Bidean egingo dugu topo.

ATAUNen, 2023ko irailaren 13an.

UROLA KOSTAKO HITZA GUKA

Asteazkena, 2023ko irailaren 13a

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Iñitza Elustondo.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@uktu.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus.
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Publizitate: Urola Kosta: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39. zarautz@uktu.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23. orio@uktu.eus.
Zumaia: 685 71 20 90. zumaia@uktu.eus.
Getaria: 607 49 87 23. getaria@uktu.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25. azpeitia@uktu.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27. azkoitia@uktu.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27.
zestoa@uktu.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen
arreta zerbitzua
(zalantzak
argitzeko,
harpidedun
egiteko):
943-30 30 35



Temperatura
V 22°
A 17°

Mareak

Itsasgora	04:07-16:19
Metroak	3:45-3:72
Itsasbehera	10:00-22:30
Metroak	1:26-1:03

zarauzkohitza.eus/ / urolakosta.hitza.eus

Agenda

Bihar, osteguna

Bilera

Aizarnazabal. Udalak deituta, auzo bilera Aizarnazabalen. Herriko plazan, 18:00etan.

Solasaldia

Azpeitia. Euskara eta Kulturartekotasuna Azpeitian egitasmoaz solasaldia, 18:30ean, Azoka Plazan.

Etzi, ostirala

Antzezlan

Zarautz. Baginaren bakarrizketak antzezlan, 20:00etan, Modelo aretoan.

Kontzertuak

Azpeitia. Katapulta Tour emanaldiaren barruan, Muzak eta Siglas taldeen kontzertuak, 20:00etan, Sanagustin kulturgunean.

Zumaia. Benito Lertxundiren kontzertua, 21:30ean, Aitzuri pilotalekuan.

Irailak 16, larunbata

Aurkezpena

Azkoitia. Esteban Elizondo organistaren liburu aurkezpena, 12:00etan, Ama Birjinaren Jasokundearen Parrokian.

Azpeitia. Eevee argazki liburua-aren aurkezpena, Nora Alberdiren eta Elene Olaberren eskutik, 13:00etan, Dinamo sormen gunean.

Ikuskizuna

Orio. NAO-NOW-NAU zirkua eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna, Cia Barreren eskutik, 19:30ean, herriko plazan.

Kirola

Azkoitia. V. Mangaixue mendi bizikleta marxa, 15:30etik aurrera, herrian zehar.

Zumaia. Zumaia Triatloia, 14:00etatik aurrera, Arbustaingo arrantplatik.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zinema aretoak, ikusleen zain

Udako atsedenaldiaren ondoren, zabaldu dituzte berriz ere eskualdeko zinema aretoak
• Film konbentzionalez gain, emanaldi bereziak ere izango dira; zineforuma, esaterako



Zumaia Aita Mari aretoa, ikusleak hartzeko prest. HITZA

- MARIA MAYA MANTEROLA

Udako oporraldian itxita izan dira eskualdeko zinema areto gehienak, baina ikasturte berriari ekitearekin batera hasiko dituzte emanaldiak. Zinema eskaintza konbentzionalaz gain, saio bereziak ere izango dira zenbait herritan; Zumaian, esaterako, urrian abiatuko dute zineforuma denboraldi berria.

Azpeitiko Soreasu antzokian datorren astelehenean hasiko dira emanaldiak eskaintzen. Hil honetarako haurrentzako eta helduentzako bina film programatu dituzte. Haurrentzako emanaldiak igande arratsaldeetan izango dira, 16:30ean hasita; helduentzako saioak, berriz, igandeetan, 19:30ean, eta astelehenean, 21:00etan. Emanaldi horietarako sarrerak [online](http://online.eskurtatu.eus) eskurtatu ahal izango dira aurrez, kulturaz.eus helbidean.

Azkoitian ere datozen eguntan berriz irekiko dute Baztartxo aretoa, oporraldiaren ondotik. Larunbatetik astelehenera bitar-

tean *Campeonex* filma ikusi ahal izango da, eta igandean *Vacaciones de verano* ere bai.

Igaro berri den asteburuan zabaldu zituen berriz ere ateak Zumaia Aita Mari, Greta Grewen *Barbie* filmarekin. Etxeko txikienei, berriz, *Superheroien familia* filmaz gozatu zuten. Datozen asteetako programazioa sarrerakzumaia.eus webgunean kontsulta daiteke.

Udako atsedenaldia, gainera, aretoan hobekuntza lanak egiteko baliatu du Zumaia Udalak. Iaz besaulki eta lur berriak ezarri ondoren, eszenatokiko oihala berritu dute oraingoan, eta aurrerantzean ere aretoan hobekuntzak egiteko asmoa erakutsi du Udala Gobernuak.

Film emanaldi konbentzionalak urte osoan eskaintzen dituzte Zarauzko Modelo aretoan. Zentzu horretan, uda sasoiaren ez du etenik izan eskaintzak. *Todos los nombres de Dios* eta *Ninja turtles: Chaos mutante* filmak izango dira ikusgai asteburu honetan,

eta sarrerak ticket.kutxabank.es atarian eskura daitezke.

Edonola ere, saio originalei atzo ekin zieten, *Un verano con Fifi* filmarekin. Nazioarteko zinemaldietan saritutako edo aipamena jasotako filmak ematen dituzte saio horietan.

Zineforuma, urritik

Zumaia Ostarrena klubak zinema konbentzionaletik kanpo

estreinatzen dituzten filmak eramango ditu aurtien ere Aita Mari aretora. Urrian ekingo diote denboraldi berriari eta abenduan amaituko dute, Gabonen aurretik. Urriaren Sean hasita eta bi aste behin, ondorengo filmak emango dituzte: *Asteroid City*, *Cien flores*, *Las ocho montañas*, *Upon entry*, *El regreso de las golondrinas* eta *Una vida no tan simple*.

Zozketa

29 KULTURA

Oteiza Museoa

www.museootelza.org/eu/

[Zozketa zenbakia: 29]

Bi sarrera bikoitz

Zozketan parte hartzeko deitu: **943-56 01 64** zenbakira edo webgune **TXOKOA** atalean izena eman, gaurtik irailaren 14ko eguerdiko 12:00ak baino lehen. Sari-dunen izenak ostiralean argitaratuko ditugu.

HITZA kide en
TXOKOA

